

Unibertsitatea edo lanbide heziketa: gazteen zalantzak eta antsietate-iturriak

Gaur egun, gero eta ikasle gehiagok galdetzen dute zer egingo duten etorkizunean, batez ere DBHko 4. mailan edo Batxilergoko 2. mailan. Batzuek unibertsitatara joan nahi dute, beste batzuek, berriz, lanbide heziketa egitea nahiago dute, praktikoagoa delako. Baina zer darabilte gazteek buruan? Nola sentitzen dute presio hori? Nola lagundu diezaiekegu?

Orientatzaileak zer dio?

Ikastetxeetako orientatzaileek diote ikasleak ez direla askotan galderak egitera joaten, “Ez dira etortzen galderak egitera, baizik eta arazoak edo egoera zehatzak kontatzera”, dio Leitzaran institutuko orientatzaileak. Normalean, informazio tekniko eskatzen dute, zer ikasi, non, nola eta zein pauso jarraitu behar diren.

Azken urteotan, gauzak aldatu egin dira, “Lanbide heziketak prestigioa hartu du. Lehen jendeak pentsatzen zuen unibertsitatara joan behar zuela balio izateko. Baina orain, lanbide heziketak fama ona du, lana ematen du, eta askotan unibertsitatetik baino lehenago lortzen da lana.”

Ichraq Hajjaji, Iker Bellido eta Enara Ibañez



Estresa eta antsietatea

Psikologoek diote ikasle askok estresa eta antsietatea sentitzen dutela etorkizuneko ikasketetan pentsatzen dutenean. “Batxilergoko notak, selektibitatearen presioa... hortxe dago antsietate-iturririk handiena. Badute asmo bat, baina lortu behar duten notara ailegatuko ez ote diren beldur dira beldur dira ez dutelako lortuko behar duten nota”, dio institutuko psikologoak. Horrezgain, sistemak ez du askorik laguntzen. Psikologoaren esanetara, “Ez zaie erakusten zer gustatzen zaien edo zertan diren onak. Batzuek intuizioz dakite zer nahi duten, baina beste asko galduta sentitzen dira, ez baitute benetako laguntzarik jasotzen.”

Gazteek oso gatzetatik hasi behar dute erabakiak hartzen, baina askotan oraindik ez daude prest. 4. DBH eta Batxilergoko 2. mailatik orientaziora azken momentuan joaten dira. Batxilergoko lehen mailan oraindik ez dute presio handirik sentitzen, urrun ikusten dutelako.

Hau da institutu bateko 4.DBHko ikasleei egindako galdetegi bat:



Argi al daukazu zer ikasi nahi duzun?



Gaizki pasatu al duzu aukeratzen?

Ezagutu zeure burua

Honen guztiaren ondorioz, orientatzaileak aholku argi bat ematen die, “Zeure burua ezagutu eta maite ezazu. Hori egiten ez baduzu, tontoarena egiten ari zara.” Unibertsitatea edo lanbide heziketa aukeratzea ez da erraza. Bakoitzak bere bidea aukeratu behar du, eta horretarako denbora, laguntza eta lasaitasuna behar dira. Erabaki egokia ez da beti besteen ustez onena dena, baizik eta norberarentzat egokiena dena.